

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

28/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, ehiza zenbait espeziek sortutako gatazkak kudeatzeko jarduera beharrezko gisa defendatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

28/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, ehiza zenbait espeziek sortutako gatazkak kudeatzeko jarduera beharrezko gisa defendatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek uste dute ehiza bategarria dela ingurumena errespetatzearekin eta ingurumenean egiten diren beste jardurekin, betiere araudiaren eta indarrean diren erregulazioen arabera egiten bada.

2. Arabako Batzar Nagusiek uste dute ehiza jarduera beharrezkoa dela zenbait espeziek sortutako gatazkak kudeatzeko, batez ere zenbait basa-espezieen gehiegizko ugaritasunak sortutako egoeretan; izan ere, ugaritasun horrek eragin negatiboa dauka, ingurumenaren orekan ez ezik, laborantzetan, baso-masetan eta trafiko-ezbeharretan ere.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari, Arabako Foru Aldundiari eta gainerako foru-aldundiei eskatzen diete eratu ditzatela lan-talde bateratuak, instituzio horietako sailietako ardura-dunek, adituek eta zientzialariek osatutakoak, txerri-izurriaren problematika aztertze aldera, bai eta izurrite horren kudeaketa zuzen eta multidiziplinarra bermatze aldera.

4. Arabako Batzar Nagusiek euren babes adierazten diete Trebiñuko Konderriko ehiztariei, orain arte bezala ehiza ingurumenarekiko errespetuz egiten jarraitzeko egiten duten aldarrikapenean.

5. Arabako Batzar Nagusiek ehiztariei eskatzen die ehizan aritu daitezela arloan eskumena duten instituzioek emandako arauak betez, ehiztariek egin ohi duten bezalaxe.

6. Arabako Batzar nagusiek mozio hau bidaliko diete Arabako Ehiza Federazioari eta Trebiñuko ehiztarien elkarteei.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 28a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA